

**Ebazpena: R038/2023**

**Espedientea: 8/2016**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita GHSL zergapekoak eratu zenetik aurrera duen egoitza fiskala zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 8/2016 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- GHSL higiezin-negozioak egiten dituen entitate bat da, eta Bilbon (Bizkaia) ditu egoitza fiskala eta soziala, 2013ko urtarrilaren 17an eratu zenetik.

2014ko ekainaz geroztik, alta emanda dago EJZn eraikuntzako materialen eta saneamenduko gaien eta altzarien txikizkako merkataritzan, bai eta ibilgailuen txikizkako merkataritzan ere.

2.- Zuzendaritza hori BCSL izeneko negozio-zentro bati dagokio, zeina EJZn alta emanda baitago finantza- eta kontabilitate-zerbitzuetan.

3.-BFAk GHSLren egoitza fiskalari buruzko egiaztapen bat egin zuen, eta zerga-garrantzia duten inguruabar hauek ondorioztatu ziren:

a.- BCSLk ez dauka inolako kontraturik sinatuta GHSLrekin.

b.- Faktura bat igorri zaio aholkularitza fiskaleko E enpresari, GHSL enpresarekin lankidetzan aritzeagatik.

c.- LQR jauna izan zen GHSLren administratzaile eta bazkide bakarra, zeinak Camargon (Kantabria) baitzuen ohiko bizilekua, harik eta 2014ko otsailaren 11n partaidetzak LGR jaunari eskualdatu zitzaizkion arte. Pertsona horrek Kantabrian du egoitza, baina Kanarietan erroldatuta dago. Administratzaile bakarra izatera igaro zen, eta bera da langile bakarra.

d.- Negozio-zentro horretan LGR jaunarekin egindako bilera batean eta entitatearen dokumentaziorik gabeko areto batean, adierazi zuen une bakoitzean dagoen lekutik egiten duela kontratazio orokorra.

Kontabilitatea E enpresak eramaten duela ere adierazi du, eta hark zaintzen dituela, orobat, kontabilitate-liburuak. Gaineratu zuenez, E enpresak hainbat sozietatetan egindako zerbitzuengatik fakturatzeko dio, eta sozietate horietako administratzailea da. Kantabrian daude sozietate horiek, GHSL izan ezik.

Halaber, adierazi zuen E enpresari egiten zaiola BCSLk ematen dituen zerbitzuengatik fakturazioa, aretoren baten erabilera barne.

e.- E enpresako ordezkariak faktura bat aurkeztu zion GHSLri — Merkataritza Erregistroko egoera erregularizatzeagatik egina—.

f.- GHSLk kontu bat dauka irekita C entitatean, Algortako (Bizkaia) sukurtsal batean.

g.- Ibilgetua bazkide bakarraren egoitzan dauden makinak eta hainbat ibilgailu dira.

h.- CYTSL Kantabriako entitateak aurkezten ditu zerga-aitorpenak.

i.- Bezero eta hornitzaile guztiak lurralde erkidean daude.

**4.-** 2015eko irailaren 30ean, egoitza fiskala aldatzeko eskaera egin zitzaion ZAEARI.

**5.-** 2016ko otsailaren 18an erantzun zuen ZAEAK, proposamenari uko eginez, bere egiaztapenetatik eratorritako ondorioetan oinarrituta. Horietan, zerga-garrantzia zuten inguruabar hauek egiaztatu ziren:

a.- Administrazioa ez dago egoitza fiskalean, ez da ageri postontzirik eta ezin izan da jaso informaziorik ezein bizilagunengandik.

b.- Bezeroak eta hornitzaileak Kantabriakoak edo Asturiaskoak dira.

c.- Sozietatea Kantabriako hainbat ondasun higiezinaren titularra da.

d.- 2015eko maiatzaren 7tik, sozietateak % 33ko partaidetza du Kanaria Handian egoitza duen PPSLn.

e.- Lurreko ibilgailuen txikizkako merkataritza-jarduera Kanaria Handian garatzen da.

f.- Zergapekoa ez zen joan BCSLren bulegoetara 2 edo 3 aldiz baino gehiagoz.

Aipatu behar da ZAEAk Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritza Bereziak 2015eko azaroaren 30ean egindako txostenak ondorioztatzen duela zergapekoak ez duela inoiz izan egoitza fiskala Bilbon.

Hala ere, ZAEAk Kantabrian duen Ordezkaritza Bereziak ez du onartzen egoitza fiskala Kantabrian egotea, eta ZAEAk Kanarietan duen Ordezkaritza Bereziak ere ez du onartzen bere lurraldean egotea.

**6.-** 2016ko otsailaren 24an, 8/2016 espediente-zenbakiaren pean prozedura arruntaren bidez izapidetu den gatazka planteatu zuen BFAk, eta ZAEAk ez du egin ez hasierako alegaziorik, ez amaierakorik.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

### **1.- Arbitraje Batzordearen eskumena**

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

## 2.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Espedientean dauden datu eta aurrekarietatik, egiaztatuta geratu da benetako zuzendaritzaren egoitza ez dela garatzen egoitza soziala dagoen lekuan.

Egoitza fiskala Bilboko beste toki batean egoteari dagokionez (hala nola Eren egoitzan eta abar) ZAEAREN ondorioa errepikatutzat ematen dugu, eta ukatu egiten dugu Bilbon dagoela.

Beraz, itxura guztien arabera, zergapekoaren egoitza fiskala lurralde erkidean dago, eta badirudi horrek berretsi egiten duela ZAEAREN prozesu-isiltasuna.

Bestalde, alderdiek ez dute aurkeztu behar adina zantzu Kantabrian edo Kanarietan kokatzeko, benetako zuzendaritzaren irizpidearen arabera. Beraz, ibilgetuaren balio handienaren hondar-irizpidea aplikatuta, eta, beraz, BFAren eskaerarekin bat etorriz, ulertzen da Kantabrian dagoela.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKI DU**

1.- Adieraztea Kantabrian dagoela zergapekoaren egoitza fiskala eratu zenetik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta GHSLri jakinaraztea.